

# ttipi ttapa

434



## Emakumeen kontrako bortxakeria hizpide

03

Azaroaren 25ean emakumeek jasaten duten bortxakeriaren kontrako eguna izanen da. Bortzirietako Berdintasun Arloko Ainhoa Guemesekin izan gara.



## Sokatiran lehen txapela Beti Gaztek

24

Nafarroako sokatira txapelketan Lesakako Beti Gaztek irabazi du 640 kiloko txapela. Amaiurrek eta nesketan Beti Gaztek osatzen dute eskualdeko ordezkaritza.

2006ko azaroaren 16a • XXVI. urtea



04 NAFARROAKO MERKATARITZA GANBARAK EMANA

2006ko esportazio saria  
Etxalarko Lorpen enpresarentzat





1945az geroztik

**MAGNA**

MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.

E-mail: [baztan@maglur.org](mailto:baztan@maglur.org)

tabeslar:



BAZTAN MAGNA BKT



# ESKAINTZAK

% 20-30-40ko deskontu bereziak erakusketako altzari eta osagarrietan



## ORDOKI

altzariak

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bitirria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA

DATUAK...

- Emakumeek jasaten duten bortxakeriaren kontrako eguna izanen da azaroaren 25a. Kari horretara, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak eta Berdintasun Arloak zenbait ekitaldi antolatu dituzte.
- Azaroaren 21ean «Ni ez naiz zure panpina» bideo emanaldia eskainiko da Lesakako pleno aretoan, 19:00etan. Azaroaren 24an, Merche Arzak «Biolentzia sexistari aurre eginez» solasaldia eskainiko du Berako Kultur Etxean, 20:00etan.



Ainhoa GUEMES *Bortzirietako Berdintasun Arloa*

ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

ELKARRIZKETA  
ELKARRIZKETA

# «Norbaitek jipoitzen zaituenean ez zaitu maite, hori argi dago»

Xan HARRIAGUE

## Zer modutan ageri daiteke emakumearen aurkako bortxakeria?

Beti aipatzen dugu bortizkeri mota ezberdinak daudela, psikologikoa, alde batetik eta fisikoa bestetik. Baina horien barruan ere modu asko daude emakume bat erasotzeko, batzuk soti-lagoak, besteak biolentoagoak... Europa osoa kontuan hartuz, urtero ehun emakume hiltzen dituzte gizonak eta hori da biolentoena.

## Bortizkeri psikologikoa aipatzen duzunean, zer da zehazki?

Eguneroko bizitzan jasan behar dituzun erasoak dira: lan arloan, emakume izateagatik lan bat lortzeko ezau-garri berezi batzuk izan behar dituzu; haurdun bazaude ez dizute lanik eman-go eta hori ere, gure ustez, emakumeen kontrako bortizkeria da. Psikologikoa izan daiteke kolpeak ez jasotea, baina irainak egunero...

## Bortizkeri kasu bat ezagutzen badugu, nola jokatu behar da?

Beti ere erasotzailea baztertu behar dugu, gizon horiek nortzuk diren dektatu, herri tiiki hauetan erraza da, jendeak elkar ezagutzen du eta nahiz

## «Emakumearentzat zaila da salatzea, behin salatuta gizona biolentoagoa bihurtzen baita eta bizia arriskuan jartzen duelako»

eta etxe barruan gertatu, auzokoek izan dezakete etxe horretan gertatzen denaren ideia bat. Orduan, herriaren erantzuna behar da erasotzailearen kontra, inondik inora ezin gara isildu. Gaur egun laguntzeko bideak badauden arren, emakumearentzat oso zaila da hori salatzea, behin salatuta gizona biolentoagoa bihurtzen baita eta bere bizia arriskuan jartzen duelako.

## Inguru honetan zer azpiegitura dauka bortizkeria salatzeke eta emakume hauek laguntzeko?

Bide bat Gizarte Zerbitzuetako telefonora deitzea da eta hemengo gizarte langileek lagunduko zuten emakume hori bideratzen, Nafarroa osoan badaude harrera-etxeak, hor egun batzuk egon daitezke ongi zainduta, egun txar horiek jendearekin pasatzeko. Beste aldetik 112 telefonoan ere erraz bideratzen dute arazoa.

Emakumeak gero erabaki behar du salatzea edo ez salatzea, beti errespetatu behar dugu bere erabakia.

## Kasu batzuetan emakumeak errudun sentitzen dira... Zergatik?

Sistema patriarkal honetan eta kristautasunean ere, emakumea beti erruduna da, bekatua zabaltzen duena. Heziketa hori izan dugu, baina zama horretaz askatu behar dugu, ez dugu pentsatu behar beti gauzak gaizki egiten ditugula, ez gara gai ezertarako, eraso psikologikoetan askotan aipatzen diren gauzak dira horiek... Aurtengo leloa horixe da, «Ni ez naiz zure panpina», adierazteko pertsonak gara eta nahi duguna egiteko gai gara, ez gaudela inoren menpe.

## Egoera ez salatzeke batzutan maitasuna edo haurrak aipatzen dira...

## Aitzaki horren gibelean gordetzen diren emakumeak zertaz ohartu behar dira?

Norbaitek jipoitzen bazaitu ez zaitu maite, hori argi dago. Maiteminduta zaudenean zaila da hori onartzea. Haurrei dagokienez, gaur egun emakumeek baditugu baliabideak haurrekin bakarrik bizitzeko.





1985an zazpi soziorekin hasi baldin bazen ere, gaur egun 55-56 langile ari dira Etxalarko Lorpen lantegian.

ARGAZKIA: AITOR A.

Nafarroako Merkataritaz eta Industria Ganbarak 2006ko esportazioaren saria eman dio Etxalarko Lorpen lantegiari. Kalitatezko galtzerdi teknikoak egiten dituen enpresak azaroaren 28an eginen den ekitaldi ofizialean jasoko du saria, "epe laburrean nazioartean izan duen zabalkunde indartsua" aitortzeko. Izan ere, Lorpen markako galtzerdiak 56 herrialdeetara ailegatzen dira gaur egun, eta Etxalarko lantegia ez ezik, merkataritzako saila ideki du Kanadako Toronton eta aurten ekoizpen lantegi berria idekiko du Mexikoko Puebla hirian. Lorpen lantegiak zortzi bezero zituen 1997an eta gaur egun 1.400 baino gehiago ditu, horietatik %60 Espainiatik kanpokoak. Bere langileek eta zuzendariak mendietako kirolekin zuten afizioa, galtzerdi teknikoaren arloan munduko erreferentzia den produktu batean bihurtu dute.

2006KO ESPORTAZIO SARIA JASO DU ETXALARKO ENPRESAK

# Lorpen lantegiko milioi erdi galtzerdi pare 56 herrialdetan saltzen dira

## Aitor AROTZENA

Lorpen lantegiaren hasiera, gehienetan bezala, ez zen erraza izan. 1985ean hasi zenean, kotoizko kirol galtzerdi arruntak egiten zituen, bezeroaren edo banatzailearen markarekin, kopuru handietan eta prezio estuetan. Honela, marka handiendako eta banatzaile ezberdinendako lan egitea lortu zuen, baina estatu mailan bakarrik, negoziatzeko ahalmen eskasarekin eta, merkatua bezero gut-

ti batzuen eskuetan izaterakoan, kormertziorako arrisku handiarekin.

## BEREZKO MARKAREN ALDEKO APOSTUA 1997AN

1997an, bere marka garatzearen aldeko apostua egin zuen Lorpen enpresak, produktu teknikoaren salmenta handitu eta oinarrizko galtzerdiarena jausten zuen bitartean. Honen helburua bezero kopurua handitzea eta, honenbertzez, arriskua jaustea zen.

Lorpen markaren sorreran inbertitu zuen lantegiak, ISO 9001 kalitate-araua sartuz., Etengabeko formakuntza eta hobekuntza lanak egiten zituen neurrian, konsumitzaileari sinisgarritasuna ematen joan zen. Balia bide eta kapital inbertsioa handia egin dute, galtzerdi modelo bereziak eta berritzaileak diseinatu eta sortzeko. Diseinu hauek sarituak ere izan dira nazioartean, bai bere diseinu arreratuarengatik, baita zuntz tekniko

## Jose Manuel BIZENTE *Lorpeneko sortzailea*



### “Kirol masiboak marka handiek hartuak dituztenez, mendi eta skira jo dugu”

#### Zergatik aukeratu zenuten galtzerdiaren arloa?

Kasualitatez hasi ginen due-la 21-22 urte. Herrian baginen lagun batzuk, lanbide finkorik gabe eta zerbait egin behar genuela. Galtzerdi-fabrika posible izanzen zela aipatu zigun Gerardo Genuak, makina nahiko ximpleak ziren, Euskal Herrian ez zegoen horrelakorik...

#### Geroztik ederki aldatu da lantegia eta plantilla...

Bai, 7 sozio hasi ginen eta

gaur egun 55 langile ditugu Etxalarren. Lehenbiziko den-detan hasi ginen, gero supermerkatuetan eta 1997. urtera arte bezero horiekin egin dugu lan. Baina urtetik urtera kostea goiti egiten zuen eta prezioak beheiti eta nahitaezkoa ikusi genuen aldatzea. Kalitate eta prezio handiagoko produktu batera jo genuen, zerbait gehiago eskatzen duten bezeroei begira. Horretarako «Lorpen» marka sortu genuen

eta mendia, skia eta horrelako kiroletara jo genuen.

#### Orain Ameriketara ere ailegatu zarete...

Estatu Batuetako merkaturak berezia da eta han zerbait saldu nahi bagenuen, filiala montatu behar genuen. Kanadan genuen banatzaile bat gure baitan hartu eta hura hasi da saltzen. Merkatu hori handitzen doaie eta zergak eta denbora murrizteko, Mexikoko lantegiko instalazioa egiten ari gara orain.

berritzaileak erabiltzegatik ere.

Aldi berean, Lorpenek goi mailako erabiltzaileak hartu ditu aholkulari gisara, bere produktuen ikerketa eta garapenerako. Goi mailako kirolariak dira, Lorpenen galtzerdiak laborategitik kanpo probatzen dituztenak, baldintzarik gogorenetan eta jarduera maila bortitzenetan. Errate baterako, Iñaki Ochoa de Olza mendizale ospetsuak Himalaian egiten dituen espedizioetan probatzen ditu galtzerdiak; “Team Finland” raidetako talde mistoak ere gauza bera egiten du Munduko Raid Kopako diziplina ezberdinetan. Antartidara egiten diren espedizio zientifikoetan ere Lorpeneko galtzerdiak erabiltzen dituzte.

#### BARNE NAHIZ KANPOKO MERKATUAREN GARAPENA

1997an, bere marka garatzeaz gain, bere antolaketa komertzialaren egitura ere berritu zuen Lorpenek, bi banaketa-kanal sortuz: bat laburra, salmenta puntu berezietara fakturatuz, Frantzia eta Espainian; bertzea luzea, banatzaileen bitartez nazioartera ailegatzeko. Guzi honen ondorioz, gaur egun Espainiako galtzerdi teknikoaren merkaturako buruan dago Lorpen, 500 bezero egonkorrekin eta hiru operadore garrantzitsuenetan presentzia du (Intersport, Forum Sport eta El Corte Ingles).

Baina estatuko merkatuaz gain, nazioartean ere aunitz zabaldu da azken urteetan eta Lorpenen produktioaren hirutik bi kanpoko merkatuetan saltzen da.

## ZORTZI URTEOTAN %750EKO IGOERA SALMENTETAN



ARGAZKIA: AITOR A.

Lorpenen zabalkundeak sektoreko adituen eta ikasleen jakinmina piztu du. Argazkian, Nafarroako Gestio Komertzialeko eta marketing-eko Goi Mailako Eskolako ikasleak, Imanol Muñoz Lorpeneko marketing arduradunaren azalpenak aditzen, iaz Etxalarko lantegira egindako bisita batean.

Etxalarko enpresak produktioaren %65a esportaziora bideratzen du: AEB, Errusia, Kanada, Frantzia eta Finlandia dira bere kanpoko merkatu nagusiak. Erran nahi baita, 2005eko datuen arabera, Lorpen markako 500.000 galtzerdi-pare baino gehiago bortz kontinentetako 56 herrialdetan daude.

Zenbaki osoetan, Lorpenek 90.000 galtzerdi-pare komertzializatu zituen 1998an; 2005ean, berriz, 700.000 pare. Beraz, zortzi urteotan salmentaren igoera %750ekoa izan da. Kanpoko merkaturak etengabe handitzen joan da

eta Nafarroako esportaziorako hain harri-garriak diren Groenlandia, Islandia, Kazajstan, Moldavia, Kaledonia Berria edo Singapur herrialdeetara ailegatu da.

Azkenik, 2005ean Lorpenek mendeko enpresa ireki zuen Toronton, Kanadan, ipar amerikako 500 bezero atenditzeko eta 50 saltzaileko sarea koordinatzeko. Modu beran, aurten Pueblan, Mexikon, produktio-lantegia ireki nahi du Lorpenek, merkatu hau hornitzeko eta hemendik bidaliz gero ordaindu beharko lirakeen zerga eta garraio gastu handiak saihesteko.



**ttipi-ttapa aldizkaria**

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.net

info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidente:** Pello Apeztexea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolorosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Aitor eta Fanny, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakek Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...  
**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria	30 e
Espainia	30 e
Sara (edantegia-okindegia)	40 e
Ipar Euskal Herria	50 e
Europa	50 e
Amerika	108 e
Baztan, Urdazubi, Malerrika	



**Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

### Leitzako Aralar udal taldearen oharra

Legealdia bukatzeko urte bat baino gutxiago gelditzen da eta azken momentura arte itxoin gabe, Aralarrek bultzatu nahi dituen proiektuak aurreratu nahi dizkizuegu, herritarren babesa lortu asmoz. Esan beharra dago, egitasmo hauek azken urte eta erdi honetan lantzen ari garela eta orain ailegatu dela momentua erabakiak hartzeko. Hauek dira Aralarrek bultzatu nahi dituen egitasmoak, legeldia gortu baino lehen:

- 1- Etxebizitzak: Landa Goikoa/Landa Behikoaren hirigintza planaren aldaketa.
  - 2- Hirigintza: Gasolin-degi zaharreko rotunda berria.
  - 3- Gizartea: Gizarte Zentroaren sorrera.
  - 4- Turismoa eta garapen ekonomikoa: Plazaola-ko geltokiaren eraikinen zesioa turismoa lantzeko.
  - 5- Zerbitzu orokorrak: Zonaldeko Mankomunitate orokorraren sorrera.
  - 6- Hurrengo legealdia: Abertzale eta ezkertiaren zerrenda bateratuaren sorrera.
- 1- Etxebizitzak: Landa Goikoa/Landa Behikoaren hirigintza planaren aldaketa. Aralarrek behar beharrezkoa ikusten du egitasmo hori lantzea eta onartzea arrazoi hauengatik:
- Babes ofizialeko etxebizitzak sortzeko. Orain dela 30 urte egin zirela azkenak.
  - Herriari beste bideragarritasuna emateko: -

Alde zaharra mantendu eta apaindu. - Elbarren kalea, zona komertziala, trafikoa gutxiagokin. - Landa: eraikin berriak, plaza berria eta parkeak. - Amazabal: eremu residentziala eta kirol eta hezkuntza zerbitzuak. - P.Arrazola: eremu residentziala.

- Herriko auzo guztien lotura izan den eremu berri bat sortzeko.
  - Azpiegitura publiko berriak eta egokiagoak egituratzeko: parkeak, pasealekuak eta berdegune gehiago, zubi berri bat eta eraikin dotzionalak.
  - Erreka moldatzeko: uholdeen arazoak saihestu eta herria errekarantz eraman.
  - Herriko zeharbidea deskongestionatzeko, eremu berriko zeharbidea kotxeak eta autobusak eramanez.
- 2- Hirigintza: Gasolin-degi zaharreko rotunda berria. Proiektu hau oso aurreratuta dago eta Nafarroako Gobernuko oneritza du. Rotonda berri honekin zeharbideak jarriko dira eta Lopene-ko iturria rotondaren erdian kokatuko da. Beste aldetik autobus eta kamioi handiek nahiko toki izan den dute. Herriarentzat toki polit, eroso eta segurua geldituko da, herriko erdigunean.
- 3- Gizartea: Gizarte Zentroaren sorrera. Gure usitez herriak behar du horrelako egitasmoa herriak dituen gabeziak asetzeko. Aralarrek proposatzen du horrelako gune bat sortzea, erabilpen hauekin: - Gazteen gunea. - Talde kulturalentzako guneak. - Proiektzio eta hitzaldien gunea. - Beste aukerak (zahar-erak, ikastaroak...). Uda-

lak bere garaian enkargatu zuen txosten teknikoa, Atakabeltzaren erabilpenak zehazteko eta finantziaketa aztertze-ko lanak egiten ari dira eta sarri izan den dirak ikerketa horren emaitzak. Beste aldetik eta jabeturik zine aretoa egokitu behar dela, txosten teknikoak eta arkitektonikoak eskatu ditu.

4- Turismoa eta garapen ekonomikoa: Plazaola-ko geltokiaren eraikinen zesioa turismoa lantzeko. Gaur egun eraikin horiek Nafarroako Gobernuak dira eta ez dute asmorik deus egiteko. Guk proposatzen duguna zera da: herrirentzat gelditu daitezela, zesio moduz gutxien, herriak lantzeko turismo arloan ditugun gabeziak. Asmo horien artean hauek izan daitezke guretzat egokiak: - Aterpe turistiko bat jartzea. - Trenbidea, mehategi eta burdinolen historia biltzeko gune bat. - Trenbidea mantentzeko eta erabiltzeko gunea.

5- Zerbitzu orokorrak: Zonaldeko Mankomunitate Orokorraren sorrera. Azken bi urte hauetan zenbait txosten eta ikerketak egin dira jada, zonaldeko herriek eskeintzen ditugun zerbitzu publikoak aztertuz. Nahiko datu baditugu gure zerbitzuak ezagutzeko, gure gabeziak eta onurak. Orain momentua ailegatu zaigu, erabakia hartzeko. Gure proposamena da: Zonaldeko Mankomunitate Orokorra sortzea in-guruko herriekin batera, hau da Areso, Arano, Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri eta Goizuetan. Helburuak: -Zonaldeko koordinazioa ho-

betzeko. - Nafarroako Gobernuaren aurrean indar gehiago izateko. - Finantziaketa orekatzeko, ez bakarrik biztanleen arabera, baizik formula mistoak bilatuz. Mankomunitate horretan orain ditugunak sartuko lirateke (zaborrak, euskara, gizarte zerbitzuak, partzuergo turistikoa, Cederna-Garalur) eta zerbitzu berriak sortuko lirateke (hirigintza, in-gurugiroa, herriko lanak, ura...).

6- Hurrengo legealdia: Abertzale eta ezkertiaren zerrenda bateratuaren sorrera. Aralarrek beharrezkoa ikusten du indarrak batzea. Alderdikeria alde batera utziz, garaia da zerrenda bateratua ateratzeko. Izen berri batekin, jende berrikin, taldeen protagonismoa gabe, herriarentzat lan egiteko prest.

**Leitzako ARALAR.**

### Ideien eraso = Inbentarioa?

«Gure Arrano», hau da ia orain dela 20 urte sortu genuen elkarteari jarri genion izena. Lesakar talde bat elkartu, gaur egun gure egoitza dena erosi, eta auzolanean ilusioz beterik bere zaharberritzeari ekin genion. Denborarekin proiektu honetara herritar gehiago batu dira, une honetan ia 90 bazkide gaudelarik.

Garai horretan elkarte sortzeko genituen helburuak eta oraingoak berdinak dira, hau da: - Lesakaren berreuskalduntzea mota desberdinetako ekitaldiak antolatuz, hala nola, kultur

## • IRAKURLEAK MINTZO •

ekitaldiak, gastronomikoak, etab...

- Lesakan dauden talde eta mugimendu desberdinen elkarlana bultzatzea.

Gure etxea Lesakan modu batean edo bertzean lanean ari diren talde eta mugimendu desberdientzat irekia egon da. Bere proiektuak eta ekimenak aurrera eramateko txoko bat behar izan duen edonori lekua egin diogu.

Duela egun batzuk Guardia Zibila gure egoitzan sartu eta goitik behera miatu zuen. Betidanik defenditu ditugun ideiak eta helburuak zilegiak dira, ez ditugu inoiz gorde eta ez ditugu gordeko, baina horrek nonbait susmagarri egiten gaitu. Tamaina honetako eraso honen aurrean ezin gara ixilik gelditu. Arrano Elkarteak kriminalizatu eta honen aitzakipean nahi dutena egiteko eskubidea dutela pentsatu dute. Gure ondasunen «inventario» bat egiteko etorri omen ziren. ba jakin dezatela guk dau-

kagun ondasun haundiena ordaintzeko ez dagoela diru nahikorik. Gure ondarerik haundiena gure elkartea osatzen duten gizon-emakume eta pertsona hauek herriarekin duten inplikazio maila da. Inplikazio edo konprometuz honen ondorioz, ezin da ukatu Arrano elkarteak Lesakari egin dion ekarpena. Inauterietan zaku-zaharren kalejira, Sanferminetako bertso saioa, Euskara Batzordean eta Kultur Batzordean dugun partehartzea... honen adibide dira. Gure lana eta gestioaren ezaugarriak gardentasuna eta zintotasuna dira eta gurekin elkarlanean aritu diren herritarrek eta taldeak dira horren testigu. Lesakan dauden hainbat eta hainbat elkarten moduan, finantziazioa hileroko bazkideek egiten dugun ekarpenetik lortu dugu. Inbertsio edo gastu haundiak egin behar izan ditugunean kredituak eskatzeari ekin diogu. Gure kontuak garbi daude eta ez dugu erakusteko inongo

arazorik.

Kultur ekitaldiak antolatzeko administrazio desberdinen dirulaguntzak jasotzatu, Nafarroako Gobernua eta Lesakako Udalarena adibidez, eta guztiekin gure obligazioak modu txukunean bete ditugu.

«Gure Arranoa» elkartearen jabetza, diru-kontuak, aktak eta jarduerak publikoak dira eta edozeinen eskura daude; non daude halako ekintza sasi-judizialak burutzeko «indizio» edo susmoak. Ez daude. Hemen ideiak eta pentsamoldeak dira jazarriak, ez bertzerik.

Gertakizun larri hauen ondorioz, Lesakako talde eta mugimendu desberdinetara jo nahi dugu bi eskakizun hauek egiteko:

- 1- Arrano Elkarteak izan duen eraso salatzea.
- 2- Arrano Elkarteak bere ibilbidean Lesakan egin duen ekarpena kontutan hartuz, bere lana eta iharduera babestea.

**Gure Arranoa Elkarteak (LESAKA)**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



GARA 2006-10-31

«Azkeneko bi urteetan asko ari dira erretzen. Baina nik enterramenduak ditut nahiago, ni lehenagoko ohituretara itzuliko nintzen. Askotan, errausketen kontua ez baita konbentzimendu edo sentimenduagatik egiten baizik eta leku faltagatik (adibidez Iruñean). Nik uste dut hain delikatua den kontu bati errespetu pixka bat galdu egin zaiola».

**Cesareo SOULE**  
Arizkongo lurperatzailea  
GARA 2006-10-31  
«Nik egin dudana,

kirol arloan antolatu eta aholku ematea izan da, eta uste dut gauzak ongi xamar joan direla. Kirol enpresak bereziak dira, kirol emaitzak onak izan daitezke, eta ekonomikoak oso kaxkarrak, baina uste dut Asegarcen ez dela horrelako kejarik eta gauzak ongi doazela. Kirol arloan, beriz, oso lekzio gutxi ematen ahal dizkizate».

**Julian RETEGI**  
Asegarcen kirol kudeatzaile ohia  
D.Navarra 2006-11-02

**Karlos Alzugaray**  
FISIOTERAPEUTA  
OSTEOPATIA

**Haur jaiaberrientzako osteopatia tratamenduak**

Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra  
T. 948 630 187 M. 607 853 208

**ZUBIONDO JATETXEA**

Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

**BURKAITZEA**  
- ostatu  
- erretegia

Zugarramurdiko bidua, 3 km  
948 599 280 - URDAZUBI

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berritzaileentzako sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibaritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bitirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxo: 948 637 404  
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxo: 948 133 713



## ERREPIDEAK

# Endarlatsa-Behobia zatiaren proiektua aurkeztu du Gipuzkoako Diputazioak

Bortzirietako udal agintariek egitasmoa ezagutu zuten urriaren 26an

## ttipi-ttapa

Urriaren 26an Gipuzkoako Aldundiak Behobia eta Endarlatsaren artean N-121A errepidea izanen duen ibilbide berria aurkeztu zien Bixente Arozena Arantzako alkateari, Juan Fermín Mitxelena Lesakako alkateari eta Javier Leiza Berako zinegotziari. Etxalarkoak eta Igantzikoak ere gonbitatuak zeuden baina ezin izan zuten joan.

Gipuzkoako Aldundiak duela gutti onartu duen proiektuaren obrak heldu den urteko lehen hiru hilabeteetan hasiko dira eta 2009 hondarrean bukatuko. Nafarroan, Igantzi eta Endarlatsaren artean eginen diren obrek inbateratuak dira.

## TRAFIKO ARAZOAK SAIHESTEKO SOLUZIOAK

Kasik hiru urte hauetan obrek trafiko arazoak eraginen dituzte baina Bortzirietako ordezkarien erranetan, indar hori beharrezkoa da.



ARTXIBOKOA

Hurrengo hiru urteetako lanek trafiko arazoak sortuko dituzte.

Oraindik ez dute zehaztua trafikoak nola kudeatuko duten. Baliteke Ibardindik ibilgailu gehiago pasatzea eta, beraz, Berako erdigunetik. Bertzalde, ahal den neurrian, trenbidea erabiltzea pentsatu dute, baina ibilgailu handien kasuan, trafikoak A15era bideratu behar da. Saihesbideak ezinezkoak direnean, gaur egungo errepidetik pa-

saraziko da trafikoak.

Gipuzkoa aldean egiten den N-121A errepide berri hiru karril izanen dira, tuneletan eta Puntxas eta Behobia artean izan ezik, non lau egiten diren. Hautatu duten proiektuaren arabera Lamiarrin eta Txaurretan tunelak zulatuko dituzte, 485 metrokoa eta 110 metrokoa. Gisa berean, 97, 86 eta 60 metroko bide-zubiak

eraikiko dituzte. Hala ere, proiektu ikusgarriena, Bidasoa hunkituko ez duen Endarlatsako zubia izanen da. 190 metro luze izanen duen erakinaren bitartez N-121Ako Nafarroa eta Gipuzkoako aldeak elkartuko dituzte.

Proiektuaren barrenean bidegorria moldatuko dute gaur egungo errepidea eta lehengo trenbidea baliatuz.

## Endarlatsako zubi berriaren proiektua hautatu dute

### ttipi-ttapa

Endarlatsako zubi berri berritzeko Javier Manterola arkitekturen proiektua hautatu du Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako Departamentuak.

Alde teknikoan eta ingurumenaren begirunean oinarrituz, 190 metro luze eta 15 metro zabal dituen zubia aukeratu dute. 3,5 metroko 3 karrilekoa izanen da, bi Bera alde eta bertzea Irun alde. Metro terdiko bazterbideak izanen ditu. Hasieran aurrez eraikitako egiturak erabiltzea ikusten bazen, Bidasoa izokinena ibaia delako eta ingurumena errespetatzeko, arku bakarreko eraikina egiten dute ibaiertz batetik bertzerera. Aurrekontua 11 eta 13 milioi euro artekoa izanen da, Gipuzkoako Diputazioa eta Nafarroako Gobernuaren artean ordainduko dena. Lanak 2009ko bukatuko dira aurreikusten da.

**caroha**  
guztira dardara

of. de estacion 25 baxo 948 63 08 90  
94700 Bortzirietako www.caroha.net

**bori IRUDI**  
boriirudi@telefonos.net

KARTELAK - KAMUETAK - BETERAK - TITULAK (babi dituzten neurri - abuztuak)  
FOTOKOPIA DIGITALAK - BORDAK - TITULAK - PLANAK  
ENKADERNAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPEKUTIAK - BULIDO MATERIALA  
DISEÑO GRAFICO - LOGOTIPAK - BRODUTIAK - IMPRENTA

Ezveia, 26 Etxebarria Beha D - BERA - Tel.Fax: 948 631 571

**BIZIKLETEN**  
SALMENTA ETA KONPONKETA

**BIKE - RIDE**

Kanttonberri, 1 • BERA  
948 63 12 18

**BAR**  
**Botxo**  
**OSTATIA**

**JAZONE - GOZOTEKIA**

Aitzate, 19 • 948630786 • BERA



**BERA**

## Bera Lantzen sortu du Udalak

Hirigintzako zerbitzua merkataritza elkarte honek kudeatuko du zuzenean

**Amaia eta Ainhoa**

Berako Udalak 2006ko abuztuaren 16an egindako osoko bilkuran, hirigintzako zerbitzua, merkataritza elkarte baten bidez, zuzenean kudeatzeko erabakia hartu zuen. Erabaki hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta egon ondoren, alegaziorik izan ez denez, Bera Lantzen, S.L. deituko den elkarte mugatua sortu da. Abuztuaren hasiera batez onartu ziren estatutuak ere behin betiko onartu dituzte 3.010 euroko kapital sozialarekin. Administrazio-kontseilua borts zinegotzik osatuko dute: Helena Santesteban Guelbenzu (EA), Alfredo Goienetxe Ines (EA), Manuel Iriarte Huarte (Herrialde), Julian Lekuona Martikorena (Herrialde) eta oraindik erabaki dagoen Aralarreko bat (Aralar ez baita ekimen honen aldekoa).

**Drogen mendekotasunei aurre hartzeko ikastaroa**

Joan zen larunbate-

an, azaroaren 11an, hasi eta bi larunbatetangaratuko da Komunitatean drogen mendekotasunei aurre hartzeko trebakuntza ikastaroa, azaroaren 18 eta abenduaren 16an. Nafarroako Gobernuak Osasun Saila eta Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen laguntzarekin Berako Udalak antolatutako ikastaroa da eta Isidoro Fagoaga musika eskolan emanen dute 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etatik 17:30era. Ikastaroan, batetik, gai horri buruz Berako herriak eramaten duen planaren berri emanen da eta bertzetik arazo horri buruzko informazioa. Horretarako, drogak, mendekotasuna, kontsumoa eta arriskuak aipatuko dira bertzeak bertze, beti ere batzuen esperientzietan oinarrituz eta bertze toki batzuetan eramaten diren proiektuak kontuan hartuz. Askagintzako Txus Congil eta Aiora Perezek emanen duten ikastaroa ez da guztiz teorikoa izanen eta parte hartzaileen inplikazioa eskatuko da. Ikastaroa,



ARGAZKIA: J.J. GUERRERO

**Nafarroa Oinez azken besta larunbatean**

Labiaga Ikastolak azaroaren 18an eginen den afariarekin ospatuko du Nafarroa Oinezeko azken besta. Eztegar pilotalekuan izanen da afaria eta Nafarroa Oinez egunerako lanean aritu ziren guztiak joan daitezke. Menua 15 euro kostako da eta afaldu ondortik Jalisko Bandekin dantzaldia izanen da.

gai horretan interesa duen edozeini idekia da edota osasunean, hezikuntzan eta prebentzioan lanean edo ikasten ari diren guzietan. Ikastaroa bukatzerakoan ziertagiri bat banatuko da, baina hori lortu ahal izateko, kurtsoen %80an parte hartu behar da eta bukaerara proiektua aurkeztu.

**Toki Ona institutuari kalitate zigilua**

Toki Ona Institutuak azaroaren 9an, Nafarroako Kalitatearen Egunean, EFQMko Zilarrezko Zigilua jaso du Iruñako Baluartan. Errekonozimendu hau ikastetxean egiten den etengabeko hobekuntzaren ondorioa da eta 2003an jasotako Brontzezko Zi-

gilua, 2004ean jasotako ISO 9001:2000 Ziertagiria eta Kontseiluak emandako Bai Euskarari Ziertagiriarekin zerkusua dauka.

**Pio Baroja lehiaketa-omenaldia**

«Irakurtzen duzuna, nola ikusten duzu?» izenburupean Pio Baroja lehiaketa-omenaldia antolatu du Toki Ona institutuak. Lehiaketa hau 12 eta 20 urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta bi kategoriatan banatuko dira: 12-15 urte artekoak eta 16-20 urte artekoak. Guzietan irudi bat (argazkia, marrazkia, collagea...) Barojaren obraren pasarte batekin aurkeztuko dute. Testu eta irudiaren arteko harrema-

na baloratuko denez, pasarte hori kokatzea ezinbertzekoa da eta obraren izenburua, edizioa eta orrialdea aipatu behar dira. Lanak abenduaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira Toki Ona institutuko Hizkuntza eta Literatur sailan. Irabazleen sariak, lehenbiziko mailakoarentzat 100 eurokoa eta bigarren mailakoarentzat 150 eurokoa izanen dira.

**Abesbatza zikloko azken saioa**

Azaroaren 2an hasi zen Abesbatza Zikloa eta datorren larunbatean, azaroaren 18an izanen da azken saioa. San Esteban Elizan Orfeón Pamplonés arituko da 19:00etan

**ANSONEA**  
Ostatua - jatetxea  
Eguneroko menua eta  
sateburutari menu bereziak  
Terraza estalia eta Ziberkaldea  
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 - Aitzale, 17 - BERA

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

## LESAKA

# Kultur Etxea konbentua ukitu gabe egiteko proposamena aztergai

Dirulaguntza aldatzen ez bada, egitasmo hori eginen luke Udalak

**Aitor AROTZENA**

Kultur Etxearen proiektua airean dagoela aipatu genuen aitzi-neko alean eta badirudi gai honek oraindik denbora luzez solasbidea emanen duela. Jakina denez, Nafarroako Gobernuak hitz eman duen dirulaguntzarekin Udala ez da Kultur Etxea egiten hasiko. Ez bederen konbentua ere zaharberritzea aurreikusten duen proiektua.

Joan den astean, azaroaren 8an bildu ziren udal ordezkariak Camino Paredes, Nafarroako Gobernuko Kultura zuzendari nagusiarekin. Juan Fermin Mitxelena alkateak aipatu digunez, honek, dirulaguntza ez dela mugituko erran zien. Hau ikusita, udal ordezkariak aipatu zuten proiektu berria egin beharko dutela, baina konbentua ukitu gabe. Honela, «auditorioa eta liburutegia berriak egiten lirateke, konbentua ondoko belagian. Eraikin berri horren ondoren, ruina egoeran dagoen konbentua geldituko litzatekeela adierazi genien. Izan ere, hau da beraiek emandako dirulaguntzari egokitzen zaion proiektua».



UTZITAKO ARGAZKIA

**1936ko kintoen bazkaria abenduaren 8an Kasinoan Bortzirietan eta Oiartzun, Lezo edo Irun aldean 1936an jaiotakoek urtero kinto bazkarian biltzeko ohitura dute. Urte batean Gipuzkoan egiten dute bazkaria eta hurrengoan Nafarroan eta aurtengoa Lesakako Kasinoan eginen dute abenduaren 8an. Izen ematea abenduaren 5a baino lehen egin behar da 948 637152 edo 948 637287 telefonora deituz. Argazkian, aurtun 70 urte eginen dituzten kintoak ageri dira, duela 35 urte ere Kasinoan egin zuten bazkaldoan.**

Udalak proposatutako aterabide hau, ordea, ez zen kultura zuzendariaren gustuko izan eta bertze dirulaguntza posibleak aztertuko zituela adierazi zuen. Honela, Principe de Viana erakundeko teknikariek egoera aztertu ondoren, Lesakan eginen litzatekeen bilera batera etorriko litzateke. Bilera noiz eginen den ez da zehaztu oraindik.

## XI. Rally Sprint auto igoera larunbatean Agiñan

Larunbat honetan, azaroak 18, eginen da Eguzki Sport eskuderiak hamekagarren aldez antolatutako Agiñako Rally Sprint auto igoera. Goizean autoak aztertuko dituzte eta lehenbiziko gidaria 15:00etan aterako da Agiñako errepideko 6.

kilometrotik 16.era. Ibilgailu bakoitzak lau harat-honata egin beharko ditu, bi maldan goiti eta bertze biak beheiti. Proba hau, Nafarroako Rally txapelketarako, Nafarroako Junior txapelketarako, VII. RAC Vasco-Navarro koparako eta eta II. Copa Traseras txapelketetarako baliagarria izanen da. Proba ikusteko 8 euro ordaindu beharko da.

## FLASH

## Beti Gazteko futbol eskola

1991, 1992, 1993, 1994, 1995, 1996, 1997 eta 1998an jaiotako neska-mutikoei 2006-2007 denboraldian Beti Gazteren futbol eskolan parte hartzeko aukera dute Interesatuak, bai le-sakarrak, baita inguruko herrietakoek ere, Beti Gazte elkartearekin harremanean jarri behar dute, 666 966888 telefonora deituz. Infantil eta kadete mailako neska-mutikoei ere badute Beti Gazteko talde-tan aritzeko aukera.

## Javier Igoa margolaria saritu dute Donostian

Javier Igoa margolari le-sakarrak hirugarren saria eskuratu zuen azaroaren 4an Donostian egin zen «Zipristin» margolehiaketan. «Ura maitatzeko eta zaintzeko» gaiarekin, 400 margolari aritu ziren lanean lehiaketa honetan.

## Emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontra

Udalak, bando baten bidez, tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeekiko elkartasun sendoa agertu du, baita pairatzen duten indarkeria erabat errefusatu ere. Gai honekin lotuta, azaroaren 21ean, «Ni ez naiz zure panpina» bideo emanaldia eta so-lasaldia izanen da 19:00etan pleno aretoan.

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESAKA  
IMANGU, TELLETXEA ZUZAYI  
Tfnoa.: 948 63 74 60 • 31770 Lesaka

**XATURETXEA**  
ZAZPI  
JATETXEA  
T: 948 637 027 - LESAKA

**IRU BIDE**  
Estrategia Asatza  
Iberritatu, 3 - Lesaka  
Tel: 948 637 127

**GOZZALDO**  
JAVIER IGOA  
MARGOLARIA



## ETXALAR

# Nafarroako Merkataritza Saria eman diote Lorpen galtzerdi enpresari

Jende aunitzek parte hartu du aurtengo Kultur Egunetan

### Joseba eta Nerea

Lorpen galtzerdi enpresak aurtengo Nafarroako Merkataritza Saria irabazi du. Lorpenekin batera, Justo Guindano, Asesoria Zabala eta Jose Manuel Ayesa ere saritu ditu Nafarroako Merkataritza Ganbarak. Heldu den azaroaren 28an jasoko dute saria enpresako arduradunek Iruñean. Joxe Manuel Bizentek adierazi digunez «*urte multzo bateko lanaren fruitua da sari hau eta hagitz kontent gaude. Lehenbiziko aldia da modu honetako sari handia ematen digutela eta aitzinera segitzeko indar handia ematen digu*».

### ESPORTAZIOARI SARIA

Mundu guztian duen zabalkunde handia kontutan hartuta, esporta-

zioari saria eman diote Lorpeni. 56 herrialde baino gehiagotara ailegatzeko dira Etxalarren egindako galtzerdiak. Lorpenen ekoizten diren galtzerdien %70a esportatzen da hain zuzen, Bizentek adierazi digunez.

### ETXALARTIK MUNDURA

Lorpenek urte guttitan egin duen bidea ikaragarria izan da. 1997an 8 bezero zituen, estatu mailakoak guztiak, eta orain momentuan 1.400 inguru ditu, horietako %60 atzerrian. Herriko bajera ttikietan lanean hasi zen enpresa mundu mailako hoberenetakoa bihurtu da bere sektorean, kalitateko galtzerdietan.

### Jende parrasta Kultur Egunetan

Arrakasta politarekin



ARTXIBOKOA

**Mundu osoko 56 herrialdetara ailegatzeko dira Lorpen lantegian egindako galtzerdiak. Esportazioan egindako lana saritu du, hain zuzen, Nafarroako Merkataritza Ganbarak.**

eta jendearen parte-hartze handiarekin burutu ziren aurtengo kultur egunak joan den urrian. Lehendabiziko ekitaldia mahainguru bat izan zen, «Etxebizitza herrietan: zenbat eta zertarako?» izenburupean eta 25 bat lagun bildu ziren solasaldia aditzera.

Urriaren 20an ipuin kontalaria izan zen Kultur Etxean eta haur parrasta juntatu zen. Haurrentzako azken ekitaldia urriaren 28an izan zen, Altxoraren bila joko. Hor ere haur frankok parte hartu zuten herri osoan zehar antolatutako jolasean.

### BERTSO-AFARIA: EKITALDIRIK ARRAKASTATSUENA

Jende gehien bildu zuen ekitaldia urriaren 28ko bertso-afaria izan zen. Lesaka eta Zarrutzen artean GR-8 lehiaketa jokatu zen Herriko Ostatuan eta honen aitzakian, 60 lagun bildu ziren afaltzera. Giro ederra izan zen eta bertso-saioa hagitz bizi eta ederra. Sei bertsolari aritu ziren Joseba Olagarai gai-jartzailearen erranetara: Lesatik Estitxu Arotzena, Erika Lagoma eta Estitxu Fernandez; eta Zarruzetik Oier Aizpurua, Hodei Iruretagoiena eta

Aitor Urbietia. Saio originala izan zen, ariketa desberdin eta irigarriekin, eta jendeak hagitz gustuko izan zuen.

Euskara Batzordeak Kultur Egunen hagitz balorazio positiboa egin du eta hurrengo urtetan segitzeko asmoa agertu dute.

### Uso-jatea Larraburuan

Urtero bezala, bazkari ederraren bueltan bildu ziren Larraburua jubilatuko elkartearen 29. urteurrenaren ospakizunak. Uso-jatea egin zuten eta ondorengo museoan eta partxisean aritu ziren ilunabarrearte.

**ZJ**  
**Zalain**  
*jatetxea*

Hostalari  
14 logela,  
bainu eta  
Aparatuak

Bera - Nafarroa

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

**frexa**  
zaitez gurekin!!

ALIZABARRA - BATAKORAK  
BOLETAR - BERRIBARRA  
TXANTELAN - GUTIERAN  
MONTANARRA - BILETAN  
SIBIRIARRA - BAITELAN  
LANTZORRA...

**KULTURKARI**  
publizitatea @ zerbitzuak

Arzaketa 12, 31100 Iruñea  
Tel: 943 333 333  
Fax: 943 333 333

## ARANTZA

# Hamalau gazta aurkeztu ziren Baserritarren Eguneko lehiaketara

Tuanekobordako Marixol Almandozek sari nagusia eskuratu zuen

## Nerea ALTZURI

Udazkeneko kulturaldia joan da. Egun horiei akabera emateko Saindu Guzien egunean, urte parrasta batean egin den moduan, Baserritarren Eguna egin zen, Ekaitza elkarrekin antolatuta.

Eguraldi mottela izanagatik jende multzoak parte hartu zuen urteroko hitzorduan. Frontoi sarreranazienda sailbatz zegoen. Pilotalekua berriz, merkatu tiki bat bailitzan zegoen azaroaren 1ean. Guzira hogeitabartz postu inguru zeuden eta bertako produktu eta eskulanen erakusketa zein salmenta izan ziren. Hiru mahai erredlo paratuak zeuden mota guzietako elementuekin: barazkiak, fruituak, goxokiak, zerrikiak, opilak, eskulana, erremintak, ukenduak, kamisetak... Elkartean pintxo eta edariak eskaintzeko ostalua jarri zuen. Aitziber Almandoz eta Gurutze Pikabea trikitalari eta

panderojoleak goiza alaitzen zuten bitartean, frontoiaren bazter batean bertako gazta egileen gaztak epaitzeko herriarrak bildu ziren epaimahaia osatuz: Mikel Leiza, Jaime Iturria, Gabi Goia, Iñaki Alustiza, Kontxita Alzuri eta Elena Larralde. Guzira hamalau gazta aurkeztu ziren lehiaketara eta gazta guzikiak probatu eta puntuatu behar izan zituzten. Iaz baino gazta gehiago aurkeztu da aurtengo edizioan.

Denak ere gazta onak zirela azpimarratu zuen epaimahaiak baina hiru nabarmendu zituzten guzien gainera: Puntuaziorik altue-na Tuanekobordako Marixol Almandozen gaztak lortu zuen eta ehun euroko saria hartu zuen; bigarren gazta Larraburukobordakoa sailkatu zen eta hirugarren postuan, Serorinbordako gazta gelditu zen. Ondoren, lehenengo saria eskuratu zuen gazta erdia en-



Argazkiak: Alicia del CASTILLO

Epaimahaiak gogotik lan egin behar izan zuen onen artean herriko gaztarik onenak zein ziren erabakitzeko.

kantean paratu zuten eta hogeitamar euroan basaburuar batek erosi zuen. Gainerako gazta erdiak zortzi euroan saldu ziren. Bertako produktuekin osaturiko zarea ere zozketatu zuten ohitura den moduan eta Geno eta bere familiak saskia etxeratu zuten. Ekaitza elkarrekin gonbidatuta, frontoian postu paratu zutenak Pabloenean bazkaldu zuten. Goiz polita izan zen azaroaren 1ean eta giro herrikoia ez zuen hutsik egin aurtengo Baserritarren egunean ere.

## Beheko Errotan hotela egiteko proiektua

Beheko Errota hotel bilakatuko du Jose Angel Arrietak. Amaren lehengusua non bait arantzarra zen eta osaba bat, aldiz, igantziarra. Herriko sustraia due-



Eskulangileek ere bere tartea izan zuten.

la eta horrek erakarrita Latsa errekaaren parean dagoen errota hau, Eguzkialdean dagoena erosi zuen. Aizkolena enpresaren jabea da eta 10 logeaz osatutako landa hotela eraikitzeko asmoa du. Ingurumen departamentuak emandako datuen arabera, Beheko Errota landa hotelak ostatu-jatetxea izanen du, igerileku estalia, spa, sauna, masai gela, dutxa eta

gimnasioa. Azterketa arkitektonikoa Rolando Artigesek egin du eta egitasmoan laguntza Nagore Puyadenak, Alberto Sanchezek, Vicente Canok, EKOSek eta HGMk eman dute.

Ziur aski heldu den udaberriko paper guztiak prest izanen dituzte eta hortik goiti, urte terdian eraikuntza lanak egingen dituzte. 2008ko udazkeneko ateak zabaldu nahi dituzte.

**Lanchas**  
 PARKETAK - TARIMAK  
 KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
 ESTALDURA OROKORRAK  
 Bera - Tfnoak: 948 630 735 - 607 406 781

Tel: 948 634 179  
**ARANTZA**  
**ATERPE**  
 ALBERGEA · JATETXEA

**ttipi**  
**ttapa**  
 ☎ (0034) 948 635458



## LANA

# Gorabehera ttikia izan du eskualdeko langabeziak urrian

561 langabetu zeuden, irailean baino bi guttiago



ARTXIBOKOA

Langabeziak zertxobait beheiti egin badiu ere, eraikuntza arloan 3 langabetu gehiago zeuden urri bukaeran.

### ttipi-ttapa

Eskualdeko langabeziak gorabehera anitzik ez du izan urrian eta bi lagunez behera egin du. Gaur egun 561 dira Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena eman dutenak.

25 urtez beheitikotan, ordea, langabeziak goiti egin du eta adin horretako 57 lagun, 26 emakume eta 31 gizon, ari dira lan bila, urri hasieran baino 7 gehiago. 25 urte baino gehiago dituztenetan, aldiz, langabeziak 9 lagunetan beheiti egin du eta 310 emakume eta 194 gizonetako ari dira lan bila.

Urri bukaeran, arloz arlo lan bila zeudenak nekazaritzan 7 ziren, industrian 154, eraikuntzan 45, zerbitzu arloan 328 eta sekulan lanik ez dutenen arloan 24. Ebozua begiratuta, industrian eta zerbitzuetan egin du beheiti langabeziak, 5 eta 7 langabetu guttiagorekin. Bertze arlo guzietan aldiz goiti egin du, nekazaritzan 2 langabetu gehiago, eraikuntzan 3 eta sekulan lan egin ez duten 5 gehiago baitaude.

Garai bereko joan den urteko datuekin konparatuz, aurtengoak baikorragoak dira. Iaz, urriaren bukaeran, lana bilatzen zutenak 599 ziren, aurtan baino 38 gehiago. Halere, joan den hilabetean Nafarroa osoan beherakada eskualdean baino nabarmenagoa izan da.

## Rural Kutxaren Etxebizitza Pentsioa



*“Orain, 65 urte baino gehiago dugunoi Rural Kutxak hilabetero Pentsio gehigarria eskaintzen digu”*

Zure etxeak duen balioari esker, Rural Kutxak hilabetero pentsio berri bat eskuratzeko aukera eskaintzen dizu, eta horrela, zure ohiko diru-sarrerara osatuko duzu.

Bizitzaz gehiago disfrutatzeko, bidaiatzeko, norbaitek zu zaintzeko, zure etxean edo nahi duzun tokian bizitzeko... azken finean, nahi duzun bezala bizitzeko.

Eta hori guztia, zure etxearen jabetza mantenduz.

Egunetik egunera hobeki egitea dugu helburu

[www.ruralvia.com](http://www.ruralvia.com)



**NAFARROAKO  
RURAL KUTXA**

Argibide gehiago nahi baduzu, zatoz Rural Kutxaren edozein bulegora.

## DONEZTEBE

# Arkupeak elkarteak omenaldia eginen Felipe Ganboari

Abenduaren 16ko bazkaria 20 urteotako presidentearen ohorez

## ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarteak abenduaren 16an eginen duen urte bukaerako bazkaria aprobetxatuko du presidente karguan 20 urte eman dituen Felipe Ganboa omentzeko. Besta eguna 11:30ean Doneztebeko elizan, aurten hil diren kideen omenez emanen den mezarekin, hasiko dute. Bazkaria 13:30ean izanen da kiroldegian, Marisol jatetxearen eskutik. Ohi bezala, bazkal ondoan dantzaldia izanen da 19:00ak arte. Menu berezian, arrain zopa, fritoak, otarrainxkak plantxan, limoi-sorbetea, entsalada, bildots errea patatekin eta bukatzeko txanpaina, tarta eta izozkia izanen dute, ardo, kafe eta koparekin hornitua.

Ospakizun horretan parte hartu nahi dutenek, 30 euro ordainduz izena eman beharko dute nahitaez azaroaren 13tik 23ra elkartera deituz 20:00etatik aitzinera edo delegatuekin kontaktuan jarritz. Joan etorriak egiteko autobusak hainbat lekuetatik aterako dira: Goizueta eta Zugarramurditik 9:30ean; Irun eta Leitziatik



ARTXIBOKOA

**Arkupeak erretiratuen elkarteko sortzaileetako bat da Felipe Ganboa eta azkeneko 20 urteotan presidente kargua bete du. Abenduaren 16an ongi mezeztako omenaldia hartuko du elkarteko bazkideen eskutik.**

10:00etan; Ezkurratik 10:15ean; Bera, Etxalar, Elizondo eta Almandoztik 10:30ean eta Zubieta, Sunbilla eta Oronoztik 10:45ean.

## Errekaren Eguberrietako saskia

Urteroko ohitura den bezala, Erreka Kirol Elkarteko kideek Eguberrietako saski paregabea osatu dute. Zuzendaritza Batzordearen lana arintzeko, komisioak osatu dira zenbait lan

aintzinerara ateratzeko. Horrela, saskiaren komisioa Pablo Elizondo, Joseba Legarra eta Leire Utergaren ardurapean dago.

Saskiaren zozketa abenduaren 23an izanen da, igandean, eguerdiko 13:00etan elkarteak duen egoitzan.

Errekaren saskia horrela dago osatua: mendi bizikleta, mikrouhin labea, telebista, likuadora, sandwichera, argazki-makina, turroiak, urdaiazpikoa, ardoa, li-

koreak eta bertze aunitz gauza.

Saski hau egiteko Doneztebeko komertzioen laguntza ezinbertzekoa izan da Erreka elkartearentzat. Aurten, urtero bezala, hagitza ona izan da hauen jarrera eta Errekak bere esker ona adierazi nahi die lagundu duten guztiei. Izan ere, Eguberrietako saskia hagitza garrantzitsua da elkarteak urtean egiten dituen jarduerak finantzatzeko. Boletoak ko-

## LEGASA

## Kattalin Eguna ospatuko da azaroaren 25ean

### ttipi-ttapa

Duela 5-6 urte berreskuratu zuten Legasan Kattalin bestaren ospakizuna. Garai batean herriko bestak egun honetan ospatzen ziren, baina eguraldia dela eta, abuztura aldatu ziren. Aurten, lehenbiziko urtez, gaupasa eginen dute. Azaroaren 25erako egitarau zabaldua prestatu dute. 10:00etan gosaria; 11:00etan mus txapelketa; 13:00etan dantza luzia; 14:30ean herri bazkaria. Arratsaldean Iñaki akordeolariak joko du eta gauez gaupasa izanen da Trikidantz taldearekin.

mertzioetan salgai dauten dagoeneko.

## Burrunbaren mus txapelketa ostatzu ostatu

Azaroaren 16an, Bixen ostatuan egin zen lehenbiziko jardunaldiarekin hasi zen Gazte Burrunba elkarteak bigarren urtez antolatutako mus txapelketa. Txapelketak hamasei jardunaldi izanen dituzenez, herriko ostatu baikoitzean bi jardunaldi jokatuko dira.

**Belarra**  
jaketxea  
948 450 306  
Amezitia karrika  
DONEZTEBE

**KULTURKARI**  
Fakturak • Txartelak  
Logotipoak • Folletoak  
Aldizkariak • Kartelak  
•••  
Anduek 12  
31700 ETRALAR  
Tel. 948 62 54 58  
kulturkari@npi.net



**SUNBILLA**

## Ramon Latasaren eskultura egiteko egitasmo berriak martxan daude

Bertzalde, 4x4 auto trial proba arrakastatsua suertatu zen

**Jaione OTXANDORENA**

Joan den aleko erreportaian azaldu zen bezala, Ramon Latasaren eskultura egiteko dirua ateratzeko egitasmo berriak daude. Oraingoan, azaroaren 24tik abenduaren 10a arte iraungo duen margo erakusketa antolatuta dute. Erakusketa udaletxean egonen da ikusgai, 18:30etik 20:30ak arte. Erakusketa honetan, Jose Maria Rezola, Ana Maria Marin, Juan Carlos Pikabea, Jose Maria Ape-

zetxea, Jesus Montes, Juan Carlos Olaetxea, Javier Sagarzazu, Tomas Sobrino, Miguel Angel Rezola, Mari Sol Esparza, Manolo Sanz, Maria Asun Reguena, Adrian Labadie, Eva Iratzoki, Jesus Sanz, Itziar Mikelperizena, Antonio Laita eta Koldo Sebastianen margoak izanen dira ikusgai eta salgai. Diru bilketarako sortu zen batzordearen ize-nean, margolari guztiei eskerrak eman nahi dizkiete, baita Mena argazkiak, Saskaitz hote-

la eta Nafarroako Kutxari, margolariak eta hauen margoak azaltzen diren 250 liburuxka egiteko dirulaguntza eman baitute.

Bertzalde, Ramon Latasaren DVD bat ere atera du Antton Espelosinek. Honetarako berri- rriz, udalak, Conasak eta Telletxea eraikuntza enpresak eman dute dirulaguntza eta Kulturkarin egin da. 900 DVD eta 100 bideo egin dira, eta 15 euroan egonen dira salgai eskualdeko liburutendatan:

Sunbilla, Doneztebe, Elizondo, Mugairi, Lesaka, Bera, Leitza, baita Lekunberri, Iruñea eta Donostian ere. DVDak, 64 minutuko iraupena dauka.


**4x4 auto trialak arrakasta izugarria izanzuen**

Azaroaren 5an egin zen lehen aldiz Sunbilla 4x4 auto trial eta arrakasta izugarria izan zuten, bai partehartzailerik baita ikusle aldetik ere. 32 autok hartu zu-

ten parte eta jendea aunitz hurbildu zen autoek egiten zituzten ibilera izugarri nahiz arrakastatsua ikustera. Giro paregabea sortu zen eta bertara hurbildu zen jendea oso pozik atera zen ikusitako "espektakuluarekin". Irabazleak Ander Otegi, Alfredo Garcia, Oskar Tapia, Iban Mujika eta Ion Almandoz izan ziren eta sari berezia Jokinek irabazi zuen. Zarea ere zozketatu zen eta irabazlea Genaro Gandara izan zen 044 zenbakiarekin.



«Ramon Latasa: basoko aizkolaria» bideoa eta DVDa bilduko dituen karatula. Latasa bera apostu batean eta proba baten ondotik ageri da. ARTXIBOKOA



Ñ	z N	"ÑÑ"	z	z	pkoNmjNnkNgk
...	z N	"... ÑÑ"	z	z	pkoNmjNnkNgk
"	z z	zÑÑz	z	z	pkoNlOnhpNlp
"	z z	ÑÑz	z	z	pkoNmjNnkNgk
"	z z	ÑÑ"	z	z	pkoNmjNnkNgk
"	z z	N z z	z	z	pkoNmjNnkNgk

## GOIZUETA

# Dena prest hilaren 25ean egingen den feria egunerako

Azokaz gain, herri bazkariak (aurten berogailuarekin), Kupela taldeak eta hainbat ekitaldik osatuko dute eguna

## Esteban AROTZENA

Azken bi hilabete hauetan antolakuntza taldea egingen ari den lanari esker, azaroaren azken larunbatean egingen den azinda eta artisau feriaren hirugarren ediziorako dena prest dagoela aurreratu daiteke dagoeneko.

Eguneko gauzarik garrantzitsuena azoka izanen da, jakina, baina horren aitzakian antolatzen diren ekitaldiak ere hagitx aipagarriak dira. Esate baterako, herri bazkarian ehundaka lagunentzako partehartzea espero da. Aurten, gai-

nera, berogailua jarriko da Lubineko frontoian, eta honi, Kupela taldeari gehitzen baldin badiogu, pilota plazako giroa nolako izanen den aurreikus daiteke aisa. Bazkarirako txartelak Urrutinea eta Amaiarenean daude salgai.

Goizeko 10etan irekiko den azokan, programan agertzen ez diren hainbat ustegabe-ko ekitaldiak ere izanen dira. Bukatzeko esan, herritarrei eta kanpotik datozenei baserriarraz jantzeko deialdia luzatzen dietela antolatzaileek.



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Ohitura zaharraren bat berreskuratuko dute aurten ere feria egunean Olatok eta konpainiak.

## Ansa ahizpak

Azaro kulturalaren barrenean, larunbat honetan, hilak 18, Exkerri baserriko Nelsi eta Alexandrak umeentzako eskulanetako taillerak emanen dituzte Ganbaran 17:30etik aurrera. Ostirala 24ean, berriz, 20:00etan Ganbaran hasiko den emaldia, Ansa ahizpen kontzertua izanen da.



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Azaroaren 1ean bereziki gogoan izan zituzten herritarrek betirako joandako senitartekoak.

## ARESO

# Saneamendu lanak egiten hasia da Pagozelai enpresa

Elektrizidade eta telefono sarea lur azpitik sartuz

## Juana Mari SAIZAR

Duela 20 urte saneamentuko obrak egin ziren eta orain sare hori eta uraren hornikuntza hobetzeko lanak hasi dira. Elektrizidade eta telefonoaren sarea lur azpitik joango dira. Obra hau Pagozelai enpresa ari da egiten eta martxo erdiraino luzatuko da. Peuneko zubitik hasi eta Ollene araino egin behar dituzte hobekuntza

hauek eta goiko zatia berriz, beste momentu batean egingo dute. Zola berria jarri behar die kaleei, galtzada harriekin eta bazterretan kanpora harria ateratzen zaion hormigoi berezi bat. Hau dela eta, kotxeen zirkulazioa eragozten ari dira, baina zuzatze lanak nahiko azkar egiten ari direnez, pazientzia pixkabat behar harko dugu.

## Egur lotea

Sutarako egur lotea nahi duenak udaletxean apuntatu beharko du azaroaren 30a baino lehen. Horretarako beharrezkoa da aurreko urteko egur lotea ekarri edukitzea. Bestalde, festetan aizkolariak erabiltako egurra subastatu egin behar dute azaroaren 16an eta nahi duena apuntatu egi behar harko du udaletxean.

## ARANO

# Emakumeek urteroko afaria egin zuten elkarteak

## Kontxi KLABER

Urriaren azkeneko larunbatean ordu aldaketa aprobetxatuz ohitura bihurtutako emakumeon afaria elkarteak izan zen. Aurten giro ezin hobean pasa zuten bertan elkartetako 27 lagunek, izan ere akordeoia eta guzti joan zen M<sup>a</sup> Dolores Ansa. Beranduago musari ekin zioten betiko moduan, Juanita eta M<sup>a</sup> Angeles gelditu ziren le-

henak eta Aurora eta M<sup>a</sup> Jesus bigarrenak.

## Gaztain jatea Kontzejun

Kontzeju tabernan elkartu ziren 40 lagun inguru, bakailu tortilla eta gaztain erreak jatera, sagardo upela aurrean zutela ezta-riak bustitzeko. Emaitza eta Enkarnik prestatutako tortillen ondotik Anttoniok danbolinean erretako gaztain bikainak jan zituzten.



## LEITZA

# Euskararen alde elkarlanean segitzeko asmoa

Azaroaren 10ean agertu zuten herrian Kontseiluak, UEMAK eta Iparraldeko Mankomunitateak

### Joseba URKIOLA

Kontseiluak, UEMAK eta Iparraldeko Mankomunitateak Leitza euskararen alde lankidetzan aritzeko asmoa azaldu zuten azaroaren 10ean. Hiru erakundeek Bai Euskarari ziurtagarria elkarrekin sustatzeko konpromisoa hartu zuten. Hiru urte igaro dira Leitza Bai Euskarari Akordioa abian jarri zenetik eta aurten 58 saltoki, enpresa eta erakundeak eskuratu dute Bai Euskarari ziurtagarria. Dena dela, Patxi Saiez alkateak gogorarazi zuenez, «ezin dugu orain atzera egin, euskararen presentzia handitzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea ezinbestekoa da».

### Zinea hasi da

Hasi dira 2006-2007ko zine emanaldiak. Urriaren 20ean eskainitzen lehen filma. Urtero bezala pelikula baikoitzeko bi emanaldi eskainiko dira. Ostiralean gaueko 21:30ean eta igandean 19:30ean.

Umeei zuzenduriko emanaldiak ere hasi dira. Lehen saioa urriaren 28an izan zen eta "Alhambra Printzea" filma eskaini zuten. Pelikula hauek igandetan 17:00etan eskainiko dira. Film hauek, ordea, ez dira astero-astero eskainiko. Atakabeltza gatzetxean ere ostegunetan pelikulak eskaintzen hasiko dira.

### Vanpac enpresak su hartu du

Urriaren 31ean herriko sarreratik gertu da goen Vanpac papera birziklatzeko lantegiak su hartu zuen. Vanpacen egoitza sutan zegoela abisua eman zuen herriko kamioilari batek. Leitzaiko suhiltzaile bolondresak joan ziren, baina ordurako lantegiak dauzkan bi zati handietako bat erabat kiskalita zegoen. Han aritu ziren Iruñeko suhiltzaileak etorri arte. Sute honek enpresari kalte material handiak eragin dizkio. Honetaz gain, Iru-



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

### Aurrerako jubenilek hasiera ederra burutu dute

Aurrera futbol taldeko jubenilek ere ekin diote denboraldi berriari. Urte batzuen ondoren, Aurrera futbol taldeak lehenengo urtean osatu zuen berriro ere jubenilen taldea. Aurtengo denboraldiari, beraz, esperientzia apur bat bizkar gainean daukatela ekin diote. Orain arteko emaitzak oso onak izan dira. Jokatu dituzten partida guztietatik bakarra galdu dute eta beste guztiak berri, irabazi. Momentuz sailkapeneko lehen postua berena da. Haserako helburua lehenengo urtean lortutako 23 puntuak eskuratzea bazen ere, badirudi hori laster beteko dutela eta bestelako helburu batzuetan pentsatzen has-teko moduan izango direla. Honi lotuta esan, Aurrerako lehen taldekoak ere denboraldi bikaina gauzatzen ari direla. Hauek ere partida gehienak garai-penekin amaitu dituzte eta sailkapeneko bigarren postuan sendo diraute.

## Igor Astibia aske utzi zuten azaroaren 8an

Bi urte bete behar zituen presoaldi prebentiboan

### J.U.

Igor Astibia preso leitzarra aske utzi zuten azaroaren 8an. Audientzia Nazionalak 25.000 euroko fidantza ezarri zion Igorri Navalcarneroko espetxea utzi ahal izateko eta gau berean herritarren ongietorria jaso zuen. Dena den, aste honetan ere beste ongietorri ekitaldi handiago bat prestatzeko lanetan omen dabilta herrian.

Azaroaren 16an bi urte beteko ziren Igor Astibia Espainako poli-

ziak atxilotu zuela eta geroztik presoaldi prebentiboan zegoela.

Urriaren 27an burututako udal batzarrean, Larrain Herri Plataformak Igor Astibia askatzeko mozioa aurkeztu zuen. Mozioa aho batez onetsia izan zen. UPNko ordezkariak ez baitziren batzarrera agertu. Udalak Igor Astibia berehala askatzeko eta epaiak bertan behera uzteko eskatu zuen eta senideengan asteroko bidaiak eragiten dituzten gastuak diruz laguntzeko era-

ñeko suhiltzaile profesionalek bati suak hartutako paper mordo pisutsu bat gainera erori zitzaion, eta pelbisa

eta izterrezurra hautsita dauzka.

Aipatu behar da Vanpac enpresan lan egiten zuten 15 langileen

egoera ere kaltetua geratu dela. Langileetako batzuk, enpresak berak Adunan daukan egoitzara joango dira.

gaztelu scl  
iturgintza  
kalefakzioa • saneamendua • gasa

luis cestau baraibar arkitekto tekniko leitza 607204485 lucedsa @ msd . com

## BAZTAN

# Amaiur eta Xabierko gaztelura bidaia antolatu du Aranzadik

Josu Goiaren «Lore iraunkorra» eskultura inauguratuko da Amaiurren

## Maite OTEIZA

Aranzadi Zientzia Elkartek «Xabierko eta Nafarroako konkistari buruzko jardunaldiak» antolatu ditu. Jardunaldi hauen barrenean, azaroaren 26an bidaia antolatu du. Amaiurko gaztelua eta Xabierko gartelua bisitatu ondotik, Zangotzan geldituko dira bazkaltzera. Prezioa: 40 eurokoa da.

Azaroaren 29an, berriaz, Donostiako Aranzadi aretoan Aitor Pescador Mendranok bere liburua aurkeztuko du, 19:30ean.

Apuntatzeko deitu telefono honetara: 943 466142

## Nafarroako Unibertsitateko Arkitektura Eskola

Baztango Udalak Iruñeko arkitektura eskolako azken kurtsoko ikasleei proiektu bat eskatu zien Amaiur herriari buruz, beharra izatekotan nola haunditzen ahal



ARTXIBOKOA

«Xorroxin biluxik» saioa Irurritako Gizarte Bilgunean Larunbat honetan, azaroaren 18an, Xorroxinen 25 urteurreneko ospakizunen barnean, Irurritako Gizarte Bilgunean zuzeneko saio berezia egingen da «Xorroxin biluxik» izenburupean. Bertan elkarrizketak, musika, erreportaiak... egingen dira. Saioa 11ak aldera hasiko da eta atek irekiak egonen dira, irratia nola funtzionatzen duen eta saioak nola egiten diren ikusteko, esatarien aurpegiak ezagutzeko... Musika ere zuzenean izanen da eta Jalisko Band, Pottoka, Joseba Irazoki eta bertze batzuk parte hartuko dute. Anima, hurbildu zaitetz eta Xorroxin biluztu.

den ikusteko. Proiektu hau Amaiurko Joko aretoan ikusgai izanen da azaroaren 18tik goiti.

## Lore iraunkorra Amaiurren

Abenduaren 2an, eguer-

diko 12etan, Amaiurren Josu Goiak egindako «Lore iraunkorra» eskulturaren inaugurazioa izanen da. Askanburu ondoan jarriko da. Amaiurko Gazteluan, Nafarroako indepen-

dentzia defenditu zutenen aldeko oroimenezko lorea izan nahi du. Bazkaria izanen da Amaiurko elkartearen eta txartelak salgai daude 25 euroan Santxoneko Gaztelu ostatuan.

## FLASH

## Baztan Ikastolako pottoka

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Baztan ikastolak pottoka zozketatu zuen feria egunean. Zerbaki saritua 4.074a izan zen.

## Arizkungo margo lehiaketa

Begoña Durruti margo-lari arizkundarrak irabazi zuen urriaren 29an Arizkuneko egin zen margo lehiaketa. Bozateko Nafarra etxea eta ingurua margotu zituen. 600 euroko saria hartu du Begoñak eta margoa Baztango Udalaren esku geratuko da. 25 margolari inguru aritu ziren lehiaketan.

## Erlategi Plaza

Gaur egun 'Prolongación Braulio Iriarte 0' deitzen zaio babes ofizialeko etxebizitzaren artean gelditzen den plaza-ri. Bizilagunek Erlategi Plaza deitzea eskatu dute eta horren aldeko iritzia eman du Balleko Udalak ere. Abudo, errotulazio eta zerbaki berriak ezarriko dira.

## Santa Zezilia eguna

Azaroaren 22an Santa Zezilia, musikariaren zaindariaren eguna ospatzeko Baztango Udal Musika Eskolak entzunaldia antolatu du bere egoitzan. Bertan eskolako ikasle guztiak parte hartuko dute. Entzunaldia azaroaren 21ean, asteartea, 17:00etan izanen da Udal Musika Eskolan.

## Xamariko

Euskera Zerbitzuak antolatu zuen "Xamarikoren ipuin zorroa" ikastaroa bertan behera gelditu da, jende guttik izena eman zuelako.



## BAZTAN

# Elizondoko Santiago eliza lauzpabortz hilabetez itxia egonen da lanak egiteko

Lanen aurrekontua 540.900 eurokoa izanen da

M. O.

Elizondoko Santiago eliza itxia egonen da lauzpabortz hilabetez, barrenean moldaketa lanak egin ahal izateko. Azkeneko meza azaroren 2an eman zuten eta lanak akitzen diren bitartean, parrokiak duen bertze gela batean izanen dira.

Lanak hasteko, Oskariz eraikuntza enpresak tarima altxatu, sa-neamendu lanak egin, lur azpiko kalefakzioa jarri eta portzelanazko zola jarriko du, beroa hobeki pasatzen delako. Bertze aldetik, Beis enpresak pintura lanak egingen ditu. Lanak akit-

zeko, beirateak eta organoa zaharberritu eta erretaulak garbituko dira. Aurrekontu osoa 540.900 eurokoa da eliztarrek dagoeneko 150.260 euro jarri dituzte. Aurrekontua estaltzeko, Nafarroako Kutxak eta eliztarrek jartzen dutenaz gain, epe luzerako mailegua ere eskatu du parrokiak.

### Foruzaingoak egingen ditu asteburuetakoz zaintza lanak

Iraileko aste hondar batean gertatutako bandalismo eta eraso ekintzak kontuan hartuz, udaltzaingoak aste hon-



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Balleko Udalaren zoriona jaso du Tony Huartek

Mexikon jokatu zen Munduko Pilota txapelketan brontzezko domina eskuratu zuen Tony Huarte amaiurtarrak, Estatu Batuen izenean. Orai, Balleko Udalaren zorionik eta errekonozimendurik sentituena eta bere kirol ibilbidetan segitzeko animoa hartu ditu. Erabaki hau ahobatez hartu zuen Balleko Udalak eta Huarteri herritarren eredu izaten segitzeko eskatu zioten.

darretan eta besta egunetan bere zerbitzua berri ere ematea eskatu zuen UPNk udal batzarrean. Herriko garbitasuna eta ondasun pribatuak nahiz publikoak babesteko neurriak hartzea eta dagokion aurrekontua onartzea behar beharrezkoa da, UPNren ustez.

Santi Aldako jardue-

neko alkateak aipatu zuenez, EAK ere kezka berdinak ditu azken aldian gertatu diren asteburuetak gehiegikerien inguruan eta arazoa moldatzeko lanean hasiak dira. Udaltzainen zerbitzua berri ere asteburuetan eta besta egunetan jartzeak langile eta baliabideen aldetik kostako litzateke-

ena kontuan hartuz eta Elizondon Foruzaingoaren bulegoa abudo irekiko denez, Foruzaingoaren arduradunekin bilerak egin dituzte. Honela, Foruzaingoa izanen da asteburuetan eta besta egunetan zaintza eta kontrol lanak egingen dituen, berri ere udaltzaingoaren zerbitzua jarri beharrik gabe.

**Eskisari**  
Jaimo Urrutia  
Tfnoa: 948 580 013  
ELIZONDO

**artesia**  
BULEGO ALTZARI ETA HORNIDURAK  
jaime urrutia 57 | 31700 elizondo | navarra | www.artesia.com  
tel. 948 580 639 | fax 948 580 817 | artesiaga@artesiaga.com  
DEL IZAGARREN ETA GURE ESKANTZERA ALOKATZARIA BOKAINEK JASAKO DUTU

**POTTEKI**  
ZIKLO HIRU DUTEN BERRA KANONIZATU!  
Pottoki Plaza, 7 - Ibañeta  
31700 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tfno.: 948 580 407  
pottoki@forra.es  
Aholkularitza eta zerbitzua:  
9:00 - 13:30  
16:30 - 20:00

BEHETIK  
BIBOTIK  
LOKALAKO ALKALIA  
KONPAGIAKONAKO  
KONPAGIAKONAKO  
KONPAGIAKONAKO  
KONPAGIAKONAKO  
KONPAGIAKONAKO  
KONPAGIAKONAKO

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
AGENTZIA

Santiago 15  
Tfnoa eta Faxa: 948 580804  
ELIZONDO

- n Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- n Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- n Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- n Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- n Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

## ZUGARRAMURDI

# Galeuscaren ekitaldi bat herrian egin zen

Azaroaren 3an Ospitalean bildu ziren idazle euskaldun, galizar eta kataluniarrek

## Margari eta Koro

“Galeusca” izena duen idazle euskaldun, kataluniar eta galegoen bilkurak gure herrian ekitaldi bat egin zuen. Azaroaren 3an Ospitalean elkartu ziren eta han zazpi lagun artean ipuin kontaketa batzuk egin zituzten. Erran be-

harra dago ere, gan den urteko bilkuran ere Zugarramurdira hurbildu zirela; aldi hartan leze-etan bi hizkuntzetan (euskaraz eta katalan-darrez) eta musika eta bertsotan emanez sorginen historia aditze-ko aukera izan zuten hurbildu zirenek.



ARGAZKIA: KORO

Urriaren 31n jende aunitz bildu zen kanposaindian.

## Domini Sainduko ospakizuna bezperan

Azkeneko denboretan bizi moduak eta usaiak franko aldatzen ari direla ez da dudarik, baita batzutan aldaketa hoiak beharrak hala

erakutsiz izaten direla ere: Sekulan egin ez den bezala, aurtengo Domini Sainduko funtzionak ezin izan ziren egunean berean egin eta bezperan egin ziren. Imanol gure apezak 5 herri bere gain dituzenez, ezin alde guztietan ba-

tera egon eta horrek obligatu zuen aldaketa hau egitera.

Hala ere, eta kontuan izanik urriaren 31 ez zela besta eguna, jende aunitz bildu zen eliza eta kanposaindura beren aintzinekoei otoitzak eta oroimenak erakustera.

## URDAZUBI

# Herriko motozaleak bikain dabilta Enduro txapelketan

Shak Xtreme prestatzen ari dira Julen Huarte eta Joel Eyheragaray

## Fanny eta Aitor

Julen Huarte eta Noel Eyheragaray herriko motozaleak oso ongi ibilli dira Nafarroako enduro txapelketarako puntuagarriak diren azken hiru probetan, bigarren eta hirugarren postuak lortu baitituzte hurrenez hurren.

Bi gazte hauek, mo- toan ibiltzeaz gain, bertze kirol batzutan ere saiatzen dira, horren

erakusgarri da azaroaren 25 eta 26an izanen duten erronka. Venta Peio eta Nuba diskotekaren laguntzarekin, Donibane Garazin hasi eta Sauveterre-de-Béarn-en bukatuko den Shak Xtreme lehiaketa ari dira prestatzen.

Antolatzaileek diotenez lehen sailkatuek proba bukatzeko denbora hauek beharko dituztela pentsatzen da:



UTZITAKO ARGAZKIA

Galeuscaren XXIII. edizioaren baitan, herriko lezeak ere bisitatu zituzten Euskal Herriko, Galizako eta Kataluniako idazleek. Argazkian, ezker-eskuin: Fito Rodriguez (EIE, Euskal Idazleen Elkarte lehendakaria); Jaime Perez (AELC, Idazle katalanen lehendakaria); Andres Diharasari Urdazubiko alkatea eta Cesareo Sanchez (AELG, Idazle galegoen lehendakaria).

lasterka ordu eta erdi, bizikletaz beste hainbeste, kanoan ordu bat eta motoan bost ordu,

gutxi gora behera. Datu hauek erakusten duten bezala asteburu gorra izango da gure bi

kirolarientzat, ea suer- te ona duten eta dena behar bezala ateratzen zaien!



## SENPERE

# Euskaldunen Argentina euskal diasporari buruzko erakusketa ikusgai da Elkartetxean

Herritarrak elgarrekin autoz ibiltzea lagundu nahi du Kontseilu Nagusiak

## Franck DOLOSOR

Euskal diaspora biziki hedatua da. Aintzineko mendeetan, aintz dira hemendik Ameriketarako gan zirenak. Euskaldun seme alaba tiki andana bizi da han orain, familietako izenak ikustea bertzerik ez da hortaz ohartzeko. Argentinan berean hiru milioi herritarrek euskal jatorria omen dute. Mugimendu guzi horiei buruz erakusketa bat apailatu du Euskal Kultur Erakundeak. Erakusketa hori Elkartetxean ikus

ditaikete azilaren 17a arte.

## Autoan elgarrekin

Bideetan ibilki diren autoen kopurua apaltzeko ideiarekin, Paueko Kontseilu Nagusiak web gune berria sortu du herritarrak elgarrekin ibil daitezen lagutzeko. Zerbitzu publiko berri hori baliatzea biziki errexa da, ibilbide batzuk proposatuak dira eta bertalde internautak berak ibilbide berriak proposatzeko parada dauka. Parisen eta Bre-



UTZITAKO ARGAZKIA

**Belen Oronozen bihotzeko olerkiak Hatsaren eskutik**  
Bi urte hauetan Hatsa elkarteak antolatzen duen «Maite ditugun olerkariak» deitu poetiko saila aintzina doa. Iragan urriaren 28an, Belen Oronoz hondarribarra zen bere idazle gomitatua.

tainian holako bi ekimen martxan eman dituzte jadanik eta emaitzak biziki onak dira. Web guneak mugaz gaindiko ibilbideak ere proposatu ditu bereziki Nafarroarat eta Gipuzkoarat gateko. Harat hunatak arintzea, kutsadura tikitzea eta garapen iraunkorraren alde egitea dira proiektu hunen xede nagusiak. Senperen, langile eta ikasle aintz elgartzen dira aspalditik autoz elgarrekin ibiltzeko eta gastuak apalt-

zeko. Orain elkargune berri huni esker balitake jende gehiagok ere hori egitea, eta ez litzateke batere ideia txarra gure karrika nagusiak arintzeko behar haundia baitu. Xehetasunak [www.covoiturage64.fr](http://www.covoiturage64.fr).

## Pilota


Piarres Larzabal Ziburuko kolegioko ikasleek egin nahi duten bidai baten alde pilota partida interesgarria jokatuko da Sarako trinkean azilaren 25ean

18:00etan. Alde batetik Waltari eta Mundiñano izanen dira eta bertetik Alfaro eta Haroçarene senperarra.

## Etxeko lanak

Ikasleen etxeko lanak laguntzeko elkargune bat irekia da aspaldi Senperen. Gero eta haur gehiagok baliatzen du laguntza hori. Hortaz ardura dutenek laguntzaile berriak miatzen dituzte denon laguntzarekin gure gazteak hobe ikas dezaten.

HERRIKO  
ETXERIKO  
LOKALTEGIAK  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0559542519  
Majon eta Vassage  
SARA



## SOULE

Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583  
ARIZKUN



ZOANSA  
SEAT  
VW  
HYUNDAI  
AUX  
MARKA GUZIEKON KONPONKETA  
Banarta, 2 - Alkaiaga industrialdea  
LESAKA (sarrera Beratik)  
Tel: 948 625 536 - Faxa: 948 625 505

SENE DE ARRIAGA  
MARTIKO  
Ahatekietan adituak  
eta arituak  
Martiko Pol Zaien, s/n.  
31780 Bera, Nafarroa.  
Tel: 948 625016  
Fax: 948 625036  
www.martiko.com  
Martikorekin  
zu zeu  
sukaldari.

SARA

# Postetxea aldi baterako etsia izan da azaroaren 13tik 22rat

Bertze aldetik, Sarako dantza taldea Bretainian izan da

**Laetitia eta Sandrine**

Obren denboran postetxeko kutxazain automatikoa etsia izanen da. Alabaina San Ignazio-ko lepoan eta Senperen dirua ateratzen ahalko duzue. Xehetasun gehiagorentzat telefonozen baki bat 05.59.54.21.57. Postetxe hurbilenak : Senpere eta Azkaingoak astelehenetik ortziralerat 8ak30etatik 12ak arte eta larunbatetan goizeko 8ak 30etatik eguerdi arte.

**Sarako dantza taldea Bretainian**

Ezagutza batzuei esker Sarako dantza tal-



UTZITAKO ARGAZKIA

Azaroaren 5ean Saran jokaturako zuten herriko bi taldeek St Pierre du Mont-en kontra. Sasoin honetan lehen aldikotz erreserbak eta lehenak biek irabazi zuten, 20-15.

deak antolatu ahal izan du bidai bat, hango dantza talde batekin harremanak sortzeko. Talde-

ko handienak joan dira azaroaren 1tik 5a arte. Arratseko 10etan abiatu ziren plazatik, gauaz

bidaiatzeko eta goizean ailegatzeko Ellian herrira. Leku desberdinak bisitatu dituzte: Concarneau herria, Pointe du Raz, Locronan herria eta Quimper hiria. Larunbat arratsean bi taldeek beren ikusgarria aurkeztu zuten. Igande arratsean, berriz itzuli ziren Sararat oroitzapen onekin, eta orain Sarako taldeak errezebitu beharko ditu bretoiak.

**Herriko etxeko edantegia itxia**

Azaroaren 11tik abenduaren 11 arte Herriko etxeko edantegiko ateak itxiak egonen dira.

KIROL-FLASH

**Pleka trinketeko Pala txapelketa**

Urtero bezala Sarako Pleka trinketeak bere pala txapelketa antolatzen du. Txapelketa abenduaren 2an, larunbatarekin hasiko da. Izenak eman behar dira azaroaren 25a aintzin.

**Errugbia**

Sarako senior taldeak Arrangoitzen aurka aritu ziren urriaren 29an, erreserbak galdu zuen baina lehenak irabazi egin zuen. Azaroaren 5ean Saran jokatu zuten St Pierre du Mont-en kontra, lehen aldikotz bi taldeek irabazi zuten, erreserbak eta lehenak 20-15. Hurrengo partida abenduaren 3an iraganen da Sarako zelailan Campet-en aurka.

**Eskubaloia**

Sarako neskak Mourin-en kontra galdu zuten azaroaren 5ean. Azaroaren 19an Gan errezebituko du Sarak, garaipenaren bila.

**Rekordatorioak egiten ditugu**

**Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua**

KULTURKARI • Andutzeta 12. Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58

**Manolo CORTA TELLECHEA**  
Beran hil zen urriaren 28an

Zuk erakutsitako bizitzeko era guretzat ikasgai-izaten da betirako.





## EZKONTZAK

**Francisco Javier Rekarte Urrutia** eta **Sandrine Etxepare Etxabe**, Arizkun eta Ustaritzekoa, urriaren 21ean.  
**Jose Jauregi Zelaieta** eta **Francisca Flores Vidal**, Azpilkue eta Leitzakoa, azaroaren 2an.  
**Jon Karlos Zabaleta Baleztena** eta **Nerea Gartzia Berasategi**, Leitzakoak, abuztuaren 5ean.  
**Joseba Mirena Argarate Larre** eta **Itziar Oiartzabal Goñi**, Lekaroz eta Oiartzungo, Igantzin urriaren 14ean.



## SORTZEAK

**Maialen Etxeberria Dagerre**, Arizkungoa, urriaren 26an.  
**Julen Urrutia Telletxea**, Arraiozkoa, urriaren 30ean.  
**Aimar Arotzarena Flores**, Berakoa, urriaren 23an.  
**Amaia Arburua Sagastibeltza**, Berakoa, urriaren 28an.  
**Joel Prendes Pikabea**, Berakoa, urriaren 26an.  
**Oier Oiartzun Aldaia**, Leitzakoa, urriaren 28an.  
**Ane Loitegi Zabaleta**, Leitzakoa, urriaren 31n.  
**Iker Telletxea Oiartzabal**, Lesakakoa, urriaren 26an.  
**Saioa Gamio Gonzalez**, Gaztelukoa, urriaren 26an.



## HERIOTZAK

**Isidora Huarte Egozkue**, Elizondon, azaroaren 2an, 83 urte.  
**Antonio Pikabea Ordoki**, Lesakakoa, urriaren 27an, 75 urte.  
**Felisa Abad Estibaliz**, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 25ean, 70 urte.  
**Manuel Korta Telletxea**, Berakoa, urriaren 28an, 64 urte.  
**Francisco Azkarate Maiora**, Gartzaingoa, urriaren 28an, 79 urte.  
**Jose Joaquin Iturria Martikorena**, Etxalarkoa, urriaren 29an, 67 urte.  
**Maria Rosario Larralde Otxoteko**, Lesakakoa, urriaren 30ean, 72 urte.  
**Maria Nieves Murugarren Lekaroz**, Sunbillakoa, azaroaren 1ean, 83 urte.  
**Juana Maria Mendiola Lizarralde**, Donamarian, azaroaren 3an, 82 urte.  
**Isidora Irtzoki Agirre**, Berakoa, azaroaren 3an, 92 urte.  
**Egoitz Aranburu Sebastian**, Berakoa, azaroaren 6an, 6 urte.  
**Manuela Perurena Garbisu**, Legasakoa, azaroaren 6an, 79 urte.  
**Mercedes Urrutia Otondo**, Arizkungoa, azaroaren 6an, 74 urte.  
**Maria Encarnacion Ansalas Irigoien**, Etxalarkoa, azaroaren 6an, 79 urte.  
**Epifania Uitz Salaberria**, Goizuetakoa, azaroaren 3an, 90 urte.



**Jose Angel «KOTTO»**  
**ALTZUGUREN PERURENA**  
 I URTEMUGA  
 (Beran 1966-III-03/Sorian 2005-X-31)

Zuk utzitako uzta opa  
 roa  
 Ama Lurraren defent  
 san  
 erabiliko dugu.



**Joaquin**  
**ITURRIA MARTIKORENA**

Etxalarren hil zen 2006ko urriaren 29an, 66 urte zituela

Urak dakarrena, urak da  
 roa  
 zuk emandakoa,  
 gurekin gelditzen da.

**ETXEKOAK**

Mendian bere bila ibili zirenei eta egun gogor  
 hauetan gure ondoan izan zareten eta gure



**Juan Jose**  
**GALZAGORRI GALZAGORRI**

Gogorra da onartzea  
 gehiago ez zaitugula  
 ikusiko  
 baina bizi garen artean  
 ez zaitugu ahaztuko.

**ZURE FAMILIA**

## HERRI KIROLA

# Beti Gaztek irabazi du lehen txapela Nafarroako sokatira txapelketan

Emakumeen txapelketan ere Lesakako bi talde atera dira

Aitor AROTZENA

Lesakako Beti Gazte taldeak irabazi du Nafarroako sokatira txapelketako lehen txapela. 640 kiloko kategorian Lekunberrin azaroaren 1ean eta Beran azaroaren 4an egindako bi saioak aisa irabazi zituen eta honenbertzez, txapela jantzi zuen. Bigarren posturako lehia estuagoa izan zen, Beran batez ere. Berriozarrek bi tiraldiak irabazi zizkion Amaiurri; gero Txantreak bi tiraldiak irabazi zizkion Berriozarri, baina Amaiurrek biak irabazi zizkion Txantreari. Honela, Berako saioan bina punturekin berdinduak gertatu ziren Txantrea, Berriozar eta Amaiur, baina Lekunberriko tiraldiak kontuan hartuta, 640 kiloko txapelketan txapeldunorde izan da Txantrea, hirugarren Berriozar eta laugarren Amaiur.

Aurpegi berri batedo bertze ageri bada ere, Nafarroako, Euskal Herriko eta Munduko txapelketa irabaziak diren hainbat tiralari ageri dira Beti Gazteko taldean. 640 kiloko txapela jantzi zuen taldean, Karmelo eta Joxe Angel Mitxelena anaiak, Mikel

Apeztegia, Oskar Telletxea, Iñaki Igoa, Igor Telletxea, Alejo Sarobe eta Joxe Angel Zubiria aritu ziren, Jose Antonio Mujika prestatzailearen erranetara.

Neskei dagokionez, berrikuntza nagusia aurtent Beti Gazte taldeak bi talde atera dituela da. Beran egin zuten lehen saioa 520 kiloko kategorian eta Beti Gazte A eta B, Sakanaren gibeletik sailkatu ziren. Larunbat honetan, Lesakan jokatzekoa zen emakumeen 520 kiloko bigarren jardunaldia eta gizonezkoen 600 kiloko lehenbiziko jardunaldia, Beti Gazte, Amaiur A eta B, Txantrea eta Berriozar taldeekin.

Txapelketak aitzinera segituko du larunbat honetan, azaroaren 18an, gizonezkoen 600 kiloko azken jardunaldia eta emakumezkoen 480 kiloko lehen jardunaldia jokatu dira Elizondon, 18:00etan.

Azaroaren 26an, azkenik, gizonezkoen 580 kiloko finala jokatu da Arbizuko kiroldegian 12:30ean, Amaiur, Berriozar eta Txantrea taldeekin, baita emakumezkoen 480 kiloko bigarren eta azken jardunaldia ere.



ARGAZKIA: AITOR A.

640 kiloko txapela irabazi zuen Beti Gazteko taldea. Alejo Sarobe falta da.



ARGAZKIA: AITOR A.

Amaiurrek berriz ere taldea jarri du goma gainean.



ARGAZKIA: AITOR A.

Beti Gazteko neskek bi talde atera dituzte aurtengo txapelketan.



## HERRI KIROLA

# Mikel Mindegia Nafarroako txapelketa irabazi du berriz ere

Larretxearen gerrietako arazoak aprobetxatu zituen finalean

A.A.

